

RIKARDO ETXEAN GIZONA

Nolakoa zan Rikardo etxean? Askok eta askok jakin nahi dute. —Etxetik kanpora hainbeste lan egindako une hura, nolakoa zan etxean?

—Hori, bada. Etxetik kanpora langille bazan-ta, etxean langilleago. Bere Ekonomika-Estudio-saios gaitera, bere Alfabetatze-lanetarako prestakizunak, eta bere «ZERUKO ARGIRAKO» botiko bi edo tri artikuloak. Besteak beste. Beti lanean.

Hori bai; bein ere hortarako inor molestatu gabe. Ixil-ixlirik, bera bere gisa. Eten gabe.

Amaitu bider, haren eskribitzeko makinarekin tiki-toka azkarra entzumi nago ni, aren nerearen aldameneko gelatik: edozein ordutan; egun argiz, edo «gabean-gaberi», aren makinarekin eten-gabeko tiki-toka ots azkar hura...

Baiztan bai bait zekian, seme onari dagokion bezala —lana bukatutakoan, edo betiko laneaz aspertutakoan— saho bitan sukaldara joan eta amarekin itz-asperatu bat eginez egoten ere... amaren pozkarri, ta bere buru nekaturaren aringarri.

Otordu-garaietan, maiean gure Rikardo, beti bere puntuan, inor berari itxekoten euki gabe. Aldiz Ixil, aldiz iztan. Bein ere ez, ordea, hark, niaiean jakinduri-jardunik. Senideskin beti broma, beti alai...

Baiztan Rikardo-ren bizitzan, heretako ordurik ezin ahaztuena —gure Berrozpeko Elizan jaunartzen ikusten nuenez gain— beti ere beste egunoroko ordu bat izaten zan: etxeko oltura zaharreko Erosario-ordua; (Hunabarruko, afa-autreko Erosario Santuaren ordua.

Hortarako doa entzun bezain laister, lan danak bertan behera utzita, an jextiko zan gure mutilla, saho bitan berri ere, bere gelatik sukaldara, han mutur batek bestera, joan-etorri, joan-etorri, «Agurmariak eta Agurmariak» gurekin batean —utzitako lanea distraitu-antzean— esan eta esatera...

Hoi-etxek dira, nere baitan, bein ere auztuzeko gogoan eukiko ditudan, Rikardo-ren, etxeko oroitza-penak: haren eten-gabeko makinarekin tiki-takakoa, eta aren Erosario Santua esateko, sukaldaren batetik besterako ibilbi distraitua...

Eta —ezin degula sinistu, herri ere, noiz-nai, hemen, gure artean ikusi behar ez degunik... Ezin sinistu.

LEKUNATAR MANUEL

RIKARDO ETA KULTURA

Eskena-gisa, apante batzuk bakarrik eman nahi ditut. Luzatu eta buru-bildu litezke. Baina gaur eta hemen ezin ditut.

Rikardok euskal kultura gertatutako goguzen zana. Hortan ibiltuaren esperientzi jakingarria zeramakian.

Eta Rikardorenat, kultura ez zan bere burua edo auztuzeko bide errez bat. Eginkizian eta betebehar bat zan, hori bai. Ez dau dudarik.

Euskal kulturak hizortia gundira zezan, jakintza-plamifikatzen bat eskatzen zuan. Planifikazio bat, arrisku gogurri baterik gure kultura beltin beinako libratzeko: espontaneismotik, alegia. Eta espontaneismo zer dan, programa baten arabera lan egiten ez danteen, norik ez dakit.

Euskal kultura, Rikardorenat, aurkaria izan du, ez da bestela aurkaperidierik. Ez da iriziti txoro bat, ez eta snobaleria bat. Zergatik, bada, aurkaria? Hara: konserbatzea baino gehiago lortzea, ez-tigania bilatzea, beste kultura nauten maila irista, dalaiko gure lehen arazoa. Lehengoaren gain nola ez, baina geroa gauzatuzeko lanabes egokia litzekizanta bat ez baldin badago egiten, orduan litzekizanta bitzek ez da ogeigarren mendean biltzeko eskubiderik. Printzipio oro-

korra dana, gure Herria ekartzeak bidartu egiten gaudala ematen du. Baina burua lurpean eskutatuz, arazoak ezin dituzke usa. Herri-gotik zerabiltzan Rikardok eskuratu-ko kulturak-lana.

Kulturalismoaren arriskua ere ezaguna zitzaion. Honen aurka diktismoaren harmak hariu zituan. Bi adibide soilki jarzaten: JAKIN 35-eko Marcuseri buruzko bere «Egu-kiuldeko utze hotiek» eta arreetan zeramakian alfabetatze-kampaina hori nola espika ditezke bestela?

Alfabetatzea apantezan, ezin dugu ahaztu ekinza honen sustaioa. Jakintza-infrastruktura, esan nahi dit. Maiz muntzatu gisan hontaz. Gure artean, alfabetatzeak eta ikastolok eratzen dute batez ere infra-estruktura hori. Eta hau zuzen intelektual baten lana Herria ez-eramanitu zedin, alfabetatzeari ekin zion buru eta bihotz Rikardok. Ba dakizga lantide hontan, egile eta eragile borrokatariena bera izan zala.

Bukatzeke, Nik duramkidun lanak ez dakit zenbat balio dezaken, tan ez?) Rikardok asko lagundu zidala aitortu nahi dit.

JOAN MARI TORREALDAY



Gure Rikardo zana gazte urdurizat hartzen zuten batzuek, besterik ez. Baina Rikardo gizon osoa eta heldua zan, benetako. Arregi, egiaz esan dezakegu herri-aren batean holako gizonik ez direla agertzen, behin edo behin besterik.

Laburra izan bada ere, bere bizirik ekarri onak eta sasoiak izan zituen ta, Rikardoren izena urte askotan maiztasnez oroituko da Euskalerrian.

Adimen indartsua ta argia zan Rikardorena, eta argidura hau sail askotan azaltzen zan. Aspaldi hontan, izan ere, matematika ikaskuntzan laguntzen monnik. Batzutan harriturik gelditzen nuztan bere "poder de sintesis" egiztatzean. Teoria bat agertzen zutenean, oinarriak eta elburuak erakusten zituen asirgatik, argi izugarriekin. Oso gutxi duade, matematika ikasle-aren artean, horrela egin ahal dutenak. Matematika-zaila handia izan ahal zitekean, izan nahi ezkeru. Baina berak, hameroak ez, gizonak eta gizarteak maitatzen zituen batez ere.

Bi kualidade zituen, guztiz maingorri egiten zutenak, garbitasuna eta prestutasuna edo eskuzabaltasuna alegia.

Garbia zan gure Rikardo. Poza eman zuen berekin har-emanak izateak. Beraren ategin eta irabaziak ez ziran inoz sartzen bere asmoetan. Bestaldetik langile izagarria genuen, ezin sinistekoa. Herriaren alde ekiteko beti prest.



Arazo berri bat agertzen zanean bere buruaz ahazten zan eta berehala lanean zenaten.

Erlitio sailean oso gizon serioa zan, uste dudanez. Bere kezkek, egiazkoak eta sakonak ziran. Azuleko erlitioa, mioloak eta sasi irudipenak iguin zitzaizkion.

Benetan, egiazko jainkoaren bila zebilen beti, begi ta bihotz garbikun.

Jainkoak berak, misteriozko jainko Horrek, hartu digu. Gurea baino zoriontsuagoa da orain gure Rikardo lantzeran ipiritua.

CARLOS SANTAMARIA

Rikardo Arregi pentsalaria Bere lanak eta berari buruzkoak

Gaurko pentsalari bibaina, gazte egialari baliotsa, euskal kulturaren arduraz eta bere etorkizunari laket, eskaintza osoa emanez zijoana hil zaigu: Rikardo Arregi.

Baina gure herriarekin ez-erik munduko problema eta kezketarik egunean egungoa ausnartuz bizi zan gazte kementsua. Oraindik tinta freskora nabari dute munduko problemaz ZERUKO ARGIA-ren Herriak eta gizonak eta JAKIN-en Marcuseri buruzko Eguzkialdeko hitze hotiek... izeneko saiakera.

Munduak berakin azaltzen duen molde eta uste zaharrak aztertu ta berritzeko agarria agiri duen ordu honetan, hauen arduraz kezkatu bizi zan gure gaztea. Zeren, ora guztietako konzetuen errebisioa eskutzen dan egunetan, hain kezkatu zena ezin zitekean lo egon. Bere abururak murgildu zituen gizartearen guren mailako pentsamenteratik. Berrikiko, amaika krisis garaitu beharra izan zuen, zantzean eta bihotzean, ausarti, argiaren bila. Zentzu-bakanez, jakin-min sakonez eta kontzientzia garbiz. Errotik aztertu ere, bere pentsamena gazte askoren gidari agertu zuten honak. Izan ere, amaika gazteren bideak irki zituan gure aforrean.

Bere izatez honela zelarik, uste gabeko heriotzaren mugan sufrimendurik izan ez bazuen ere, bizitza zehar antiz sufritu beharra tokatu zitzaion. Euskaltzaleoi aspaldiko egoerak ematen digun sufritza espiritualetik aparte, uste zaharrak berritzean, hainbeste aldiz, argi bila, bere konzetu bideak hautsi beharrean arkitu zati; eta gizonarentzat zer sufrimendu handiagorik?

Baina, beste batzuek idatziko dituzte bere gorizmenak, eta bere zentzuna hain praktikoa zenez, bere erakusiderei jarraituz, uste honetan, egintza bidezko zenbait proposamenduen egin nahi nituzke bere gogoari leialki erantzuteko.

Rikardo zanak ohorerik handienak merezi ditu, bere izakerarekin ados loterkean omena. Bere nortasuna onduen erakusten duena, bere lana izaki, eta gazte askoren ikasbidetarako biltzea komeni zaigu. Alde batetik bere lanak eta pentsaerak aztertu nituena, eta bestalde idatzieraren bilduma osoa:

1) Saiakerazko liburu bat bere bizitza laburki emanez, peridismu ekinza, pentsalari bezala jarraitu zuen eboluzioa, euskera eta euskal kulturari buruzko irizirik, politika internazionaler ziteuen irizpidetako, euskal alfabetatze lanen asmo eta eragintza, eta abar, zehatz-zehatz estudiantuko dituen saiakeraz hornitutako bilduma. Bere idazlan eta hitzaldiak lekuko. Lan hau, behar bada, berak hainbeste saiakera argitaratu zituan Jakin-en zenbaki berezi batean eman ditek.

2) Bero lan guzieren bilduma argitaratzea, lehenengotik azkenera, bere ekinza eta pentsameneraren gara-beharak argi agertzeko. Bere bizitzan, gazte askorentzat bide irizitzaile izan dalarik, bere hilburuko eragile izaten jarrai bedi. Hemen sartu ditezake zenbait hitzaldi eta lan argitaratu gabeak, baldin argitara gaberik bada. Lan argitaratuak, gehienak, badakizgu Zeruko Argia eta Jakin-en dituala eta biltzea ezta hain nekeza izanen. Lanok, bere ordenu kronolojikoan gaitz sailka jarriaz; esate baterako: Nazio arteko unea, Herriak eta gizonak, Saiakerak (hemen, Jakin-en argitaratuak behin-behinean), Euskal kulturari buruz (zenbait hitzaldi, lan eta artikulu berezi) eta, bukaeran, Orotarik, gainerako ondakinak bilduko dituen saila.

Honela, lanok, lekuko bikaina izango lirako gaitzen artean ekinza suspertzeko. Izan ere, beste inor bai eta hain urte gutxian hainbeste lan egin duenik? Norik pentsa hogetasei urterako horren beste lan burutu zitekeanik? Har dezagun barne-gogoz egin dezakeenaren ispilu.

Holako zenbait oinharri harturik, Jakin taldeak edo batzorde bat jarri behar luke antolamenterako. Bero lanok argituztat, bere herriaren omeneko jaialdi bat eratzea ere bai, gure artean bere gogoak bizirik irautu dezan.

JUAN SAN MARTIN

Euskal Alfabetatzea Rikardo gabe

«Euskal Alfabetatzea» umezurtz gelditu da. Euskaldun guzirik bezala, dolo ezkararen soinu latzak mantu beltz itxi batez estali gaitu gu ere, Rikardo-ren zuzendaritzapean ari ginen alfabetatzaileek.

Euskaldunak alfabetatu. «Izan ere, zertarako hallo dezake zenbait euskalduneko auskerazko idazlan mamitxurik egiteak, baldin Herriak bereganatzen ez badu kultura-ekinza hori?»— esan ohi zuen.

«Gure Herria kultura-infrastruktura bat moldatu behar dugu».

Eta ari ginen.

Herrialdeetako ordezkariak eta berak zuzentzen zuen Donostia-ko batzordeak bi Biltzar Nagusi egin genituen: Donostian eta Eibar-en. Berotetan Euskal Alfabetatzearen Araudi probisonala ontzat eman zan.

Bizkaia ta Gipuzkoako zenbait herriatan alfabetatze kanpaniak egin dira surten.

Orain dela bi ilabete Donostian, lokal bat sikilatuz genduen... (alobera, bestelako diru faltaz, oraingo Arregitarrek ordaintzen zutelarik). Propagandarako materialak, karpatak, artiboak... hantxe ditugu. Bulego Koordinatzailearen egoitza hantxe ari ginen antolaten. Hau dena, noski, Rikardo-k gogotuz ta sendo zuzentzen zuelarik eta A. Irigaray jaunak Euskaltzaindaren babes ofiziala eskaintzen zigularik.

Asmorik sendoenak datorren urterako genituen: diru laguntzarik lortzen bagenduen, propaganda bidezko sendotu ta gehitu: Irratsaioak, paskinak, esku-paparak,

festibalak... Herrialde bakoitzean alfabetatzaile sail berririk eratu. Bigarren mailako alfabetatze ekinaldi batorako testo berririk aukeratu ta inprimatu... t.a. «Gallurreraino irixi behar gaituz», esaten zuten Rikardo-ki.

Orain hutsune ikaragarri bat, lehen lema trinkoa zegoen hartan.

Lehenego ostiraleko arratsalde eguzkitsua bai arratsalde iluna. Andoain-en bildu ginen edo-ta beren bizilekuetan gelditu ziren euskaldun askoren barrunbetan esan-ezin-halako pena. Baina, pena hontan sustaliturik, baita asmo irmo bat ere: «Hik fandutako aforren jarraituko diugu guk ere, Rikardo, nola edo hala».

Euskal Alfabetatzea «hori hontako hildo nagusi bat da».

Guri, Euskal-Herri guztiko alfabetatzaileori, dagokigu hortan jarraitzea.

Datorren urteak zifoz «gailurra irixterainokoa» behar du izan. Hortarako bideak denon artean tajatu behar: Euskaltzaindia, Herrialdeetako ordezkariak, Donostia-ko taldea, alde guztietako laguntzaileak...

Eginkizun hau burutan etaraztea da Rikardo-ri egin dezalokegun omenaldirik omena, besteak beste. Rikardo-ri omena eta gure Herriari sarbitzua: haren nahia ta honen ona bat baziren, ez bi. Izan bakigui bere gomuta samina indar eta arnas. Agur, Rikardo «joan zaitzaizkigu lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik».

ZENBAIT LAGUNEK